


Cantabria, txapela kentzeko moduko pelotarixa

UMIA NINTZALA ZUBIARRERA EMOTEN DABEN "TRAVESÍA CANTABRIA" KALE-TXARTELA IRAKURTZEN NEBAN BAKOITZIAN KANTAURI ITSASUAKIN LOTZEN NEBAN, GERORA SANTANDERREKIN ETA NESKATOTAN BERTAN JAIXOTAKO PELOTARI BATEN GITXIZENA ZALA JAKIN NEBAN. IDAZTIXAU PRESTATZEERAN KONTURATU NAZ PLAKA ETA KALETXUORI TXIKIXEGIXAK DIALA HAIN ENTZUTE HAUNDIKO GIZONANTZAT.

Bernardo de Gárate y Zenarruzabeitia 1883ko maiatzaren 20xan jaio zuan. Aitxa José Niceto zan, armerua eta Victoria Antonia zan amaren izena. Ume-umetatik ekarren Benardok pelotarako afeziñua eta edozein bitxarte aprobetxatzen ei eban pelotari hau-tsoz etaratzeko. Anai txikixa zaintzeko kargua ekanian be, frontoira bera: txikixori batu ondo-ondo manta artian eta frontoi ezkiñan lagatzen eban, lo. Behin ama orruaka eskobiakin agertu ei jakon; Benardok lo euana edozelan hartu eta frontoi horma ostetik *Infreñurutz* antxitxiketan zoiala, mantapetik labandu eta blausa! lurrera txikixori. Esnatu zan kontizu eta ez ei jakon ezer pasau, baiña orduan gabian harenian makilla salda bero-berua egon ei zan afaltzeko.

Hamalau urtekin jausi eta ezkerreko eskua betirako mankau eban. Ordurako destakutzen hasitxa euan, eskuz zein palaz ez ekan kontrariorik eta esku bakarrakin asko birekin baiño gehixao zan. Kontau eitxen eban berak zelan etara eban behin txokora botatako pelotia: antxitxiketan sartu, altxau pelotiori eta abixadian abixadiatz sei txerdixan errebotau erañ zotsala. Eta min hartutako ezkerakin gainera! Baiña bere hasañarik haundiña, pelotiarren historixan izen haundi izatera eruan ebaña izan zan: zazpi eguneko aldiakin 1906an Eskuzko eta Palazko Txapelak eskuratu izatia. Eskuzko modalidadian 1913rarte eten barik izan zan txapelduna.

Tarte horretan ezkondu be eiñ zan, etxe oneko alaba zan M^a Rita de Aguirregomezcorra y Zengotitarenkin. Lau seme-alaba izan zitxuen: Andresa, Pilar, Victor eta Fidel. Taillartxo



Cantabria Astelenan. (Ojanguen artxiboa. AGG-GAO OA 3402)

bat eken; bost tiroko pistola automatikuak eta plantxekin dirutxua eiñgo eben, eiñ ahalian saltzen zitxuezen eta. Ondo bizi ziran; euren esanetara hiru krixada eta kotxerua be baeken. Udan gero Zarautzera beraniatzera, kaballo edar batek tiran eruandako tribuli baten gainian.

Alkate be izan zan, dakigula 1920aren inguruko urtietan. Ezagutu ebenak eskuzabaltzat gogoratzen dau, ekana emote-ko prest. Baiña 1926an andria hil jakon partu baten ondori-xoz koman egon ostian. Hantxe hasi jakozan aldrebesten gauzak; taillarrak okerrera eiñ eban eta urte latzak bizi izan zitxuan. 1955an hil zan, abuztuaren 13an eta 72 urtian beteta zitxuala.

Galdetu nebanian: "Ermuko pelotaririk onenetakua, Cantabria?", erantzun modura nekan: "mundu osuan be, zenbat harenlakorik?"

Estibalitz González

